Azpeitiko Udala

Azpeitiko Udala
Zbk./ Nº 2026-2828
Data /Fecha 2026/06/03 12:38
Irteera / Salida

| **AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOA** | **CONSULTA PÚBLICA PREVIA** |
| --- | --- |
| **Azpeitiko kirol instalazio eta zerbitzu araudia berritzea (2026PLAN0017)** | **Renovación del reglamento de instalaciones y servicios deportivos de Azpeitia (2026PLAN0017)** |
| Azpeitiko udalak kirol instalazio eta zerbitzuen araudia berritu nahi du, gaur egun indarrean den araudia kirol patronatuak 2006an onartutakoa baita. Honako kirol instalazioen erabilera arautzen du araudiak: igerilekua, kiroldegia eta pilotalekuak.<br><br>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritakoa betetzeari begira, burutu nahi den proiektuaren azalpen memoria hau idatzi da.<br><br>Parte hartzeko aldia: 2026ko ekainaren 8tik 22ra. Ekarpenak bidaltzea: igerilekua@azpeitia.eus | El Ayuntamiento de Azpeitia quiere renovar el reglamento de instalaciones y servicios deportivos, ya que la normativa vigente es la aprobada por el Patronato de Deportes en 2006. La normativa regula el uso de las siguientes instalaciones deportivas: piscina, polideportivo y frontones.<br><br>A los efectos de dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se ha redactado la presente memoria explicativa del proyecto que se pretende llevar a cabo.<br><br>Periodo de participación: del 8 al 22 de junio de 2026. Envío de aportaciones igerilekua@azpeitia.eus |
| **Konpondu nahi diren arazoak**<br><br>Azpeitiko kirol instalazio eta zerbitzuen oraingo araudia Azpeitiko Kirol Patronatuak onartutakoa da, 2006an.<br><br>20 urte pasa direnean, arautegia ez dator bat Azpeitiko kirol instalazio eta zerbitzuen egungo errealitatearekin. Eskaintzen diren zerbitzuak handitu egin dira eta kirol instalazioak ere | **Problemas que se pretenden solucionar**<br><br>La normativa actual de las instalaciones y servicios deportivos de Azpeitia es la aprobada por el Patronato de Deportes de Azpeitia en el año 2006.<br><br>Pasados 20 años, la normativa no se corresponde con la realidad actual de las instalaciones y servicios deportivos de Azpeitia. Los servicios que se ofrecen se han ampliado y las |

ESKU7def2c37-9492-45e0-8bab-d8fad297b8fe

| | |
|---|---|
| aldaketak izan dituzte. Horrez gain, ezinbestean bete beharreko lege berriak sartu dira indarrean.<br><br>Horregatik guztiagatik eta gizartearen eskaera berriei erantzuteko, aurreko araudia osotasunean berritzeko beharra ikusi da. | instalaciones deportivas también han sufrido modificaciones. Además, han entrado en vigor nuevas leyes de obligado cumplimiento.<br><br>Por todo ello y para dar respuesta a las nuevas demandas sociales, se ha visto la necesidad de renovar en su integridad la normativa anterior. |
| **Onartzearen beharra eta egokitasuna**<br><br>Kirol zerbitzuak eta instalazioak handitu, lege berriak onartu eta gizarte eskaera berriak sortu direnez, garrantzitsua eta beharrezkoa da aurreko araudia berritzea, bai legezkotasuna betetzeko, bai gizartearen aldarrikapenei erantzuteko. Hori dela eta, araudiaren eguneratze horrek erregulazio askoz ere osatuago bat bermatuko du, hainbat alderdi eguneratu eta indartuta:<br><br>-Erabiltzaileen ezaugarriak eta horien eskubide eta betebeharrak eguneratuko ditu.<br><br>-Eskuragarri dauden kirol instalazioak eguneratuko ditu, bakoitza erabiltzeko arauak zehaztuta.<br><br>-Lege eskakizun berriak sartuko ditu hainbat alderditan, hala nola datuen babesa, gardentasuna, komunikazioa eta berdintasuna eta bazterkeria eza. | **Necesidad e idoneidad de su aprobación**<br><br>La ampliación de los servicios e instalaciones deportivas, la aprobación de nuevas leyes y la aparición de nuevas demandas sociales hacen que sea importante y necesario renovar la normativa anterior, tanto para cumplir con la legalidad como para responder a las reivindicaciones sociales. Por ello, esta actualización de la normativa garantizará una regulación mucho más completa, actualizando y reforzando diversos aspectos:<br><br>-Actualizará las características de los usuarios y sus derechos y obligaciones.<br><br>-Actualizará las instalaciones deportivas disponibles, especificando las normas de uso de cada una de ellas.<br><br>-Introducirá nuevas exigencias legales en aspectos como la protección de datos, la transparencia, la comunicación y la igualdad y no discriminación. |

ESKU7def2c37-9492-45e0-8bab-d8fad297b8fe

| | |
|---|---|
| -Zigor araubidea eguneratuko du, idazkera osatuago eta xeheago bat eginda. | -Actualizará el régimen sancionador, con una redacción más completa y detallada. |
| **Arauaren helburuak**<br><br>Helburua aurreko araudia egungo errealitatera egokitzea eta erregulazio askoz ere osatuagoa bermatzea da. Horretarako, egungo araudiaren hainbat aspektu eguneratu eta indartu nahi dira, idazketa zehatzago bat eginda.<br><br>Jarraian zerrendatzen dira aldaketa esanguratsuenak:<br><br>1.Erabiltzaile motak eguneratu eta horien eskubide eta betebeharren idazketa xehetuago bat egin nahi da.<br><br>2.Eskuragarri dauden kirol instalazioak hobeto sailkatu eta erabilera arau orokorrak eta espezifikoak zehatzago zerrendatuko dira.<br><br>3.Lege eskakizun berriak sartuko dira hainbat alderditan:<br><br>- Datu Pertsonalen Babesari dagokionez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eraginkortasunez betetze aldera, datu pertsonalen sarbidea, zuzenketa, ezeztapen eta aukeratze eskubideei erreparatuko zaie. | **Objetivos de la norma**<br><br>El objetivo es adaptar la normativa anterior a la realidad actual y garantizar una regulación mucho más completa. Para ello, se pretende actualizar y reforzar algunos aspectos de la normativa actual con una redacción más detallada.<br><br>Los cambios más significativos se enumeran a continuación:<br><br>1)Se pretende actualizar los tipos de usuarios y realizar una redacción más detallada de sus derechos y obligaciones.<br><br>2)Se mejorará la clasificación de las instalaciones deportivas disponibles y se relacionarán con mayor detalle las normas generales y específicas de uso.<br><br>3. Se introducirán nuevas exigencias legales en varios aspectos:<br><br>- En el cumplimiento efectivo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, se atenderá a los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de sus datos de carácter personal. |

ESKU7def2c37-9492-45e0-8bab-d8fad297b8fe

Azpeitiko Udala

| | |
|---|---|
| - Argazki kameren eta/edo bideoen erabilera arautzea, pertsonen intimitatea urra baitezakete eta aurreko araudiak ez baitzuen aurreikusten; izan ere, teknologia horren erabilera orain dela urte gutxi orokortu da.<br><br>- Informazio publikoari buruzko alderdi guztiak arautzea; hau da, eskuratzea, eskuratzeko eskaerak ez onartzeko arrazoiak, tramitazioa, eskuratzeko erabakia eta formalizazioa; horrela, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoa aurreikusten da.<br><br>4. Zigor erregimenari dagokionez, idazkera osatuago eta xeheago bat egin nahi da. Horretarako:<br><br>- Arau hausteak tipifikatuko dira, arau hauste arinak, larriak edo oso larriak banatuta<br><br>- Zigor motak zehaztuko dira, arau hauste mailaren arabera. | - La regulación del uso de cámaras fotográficas y/o vídeos, que pueden vulnerar la intimidad de las personas y que la normativa anterior no contemplaba, ya que el uso de esta tecnología se ha generalizado hace pocos años.<br><br>- La regulación de todos los aspectos relativos a la información pública, es decir, el acceso, las causas de inadmisión de las solicitudes de acceso, su tramitación, el acuerdo de acceso y su formalización, previéndose así lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.<br><br>4. Por lo que se refiere al régimen sancionador, se pretende realizar una redacción más completa y detallada. Para ello:<br><br>- Se tipificarán las infracciones, distinguiendo entre leves, graves y muy graves<br><br>- Se especificarán los tipos de sanción en función del grado de infracción. |
| **Balizko konponbide aukera arauzkoa eta ez-arauzkoa**<br><br>Kasu honetan, legeak betetzeko eta gizarte eskaerei erantzuteko, araudia eguneratzea da konponbiderik egokiena, beharrezkoena eta bideragarriena; izan ere, bestelako neurriek kontraesanak ekarriko lituzkete indarrean den araudiarekin, | **Posible alternativa de solución normativa y no normativa**<br><br>En este caso, la solución más adecuada, necesaria y viable para el cumplimiento de la legalidad y la satisfacción de las demandas sociales es la actualización de la normativa, ya que otro tipo de medidas supondrían contradicciones con la normativa vigente y aportarían |

ESKU7def2c37-9492-45e0-8bab-d8fad297b8fe

| | |
|---|---|
| eta horiek ekarritako konponbideak partzialak, eskasak eta desegokiak izango lirateke. | soluciones parciales, insuficientes e inadecuadas. |